

- **E R A K U S K E T A**
2012ko martxoaren 12tik apirilaren 22ra

Erakusketa hau ondoko leku hauetan egongo da ikusgai, gune bakoitzak eduki ezberdinak izango dituelarik:

- Zazpi Kaleetako Metro geltokia (Begoñako igogailurako pasabidean).
- Santutxuko Metro geltokia (Zabalbide eta Karmeloko irteeretan).
- Basarrateko Metro geltokia.
- Begoñako Udaltegia (aprilaren 13ra bitartean) (Txurdinagako Kiroldiaren ondoan).

- **I R U D I E N E R A K U S T A L D I A**
2012ko martxoaren 12tik apirilaren 22ra

Argazki-segida + "Begoña, herri garaia" bideoaren tráiler plasmako telebistan.

- Castaños, Begoña, Otxarkoaga eta Txurdinagako Udaltegietan.

- **B E R T S O S A I O A**
martxoak 15 • 19:30

"Begoñako argazki zaharrei begira bertsotan", ARKAITZ ESTIBALLES eta ETXAHUN LEKUE

- Zazpi Kaleetako metro geltokian, Begoñako igogailurako pasabidean.

- **P R O I E K Z I O A K**

"Begoña, herri garaia" bideoa.

- apirilak 23, Castañosko Udaltegian.
- apirilak 24, Begoñako Udaltegian.
- apirilak 25, Otxarkoagako Udaltegian.
- Emanaldien ordutegia: 18:30; 19:15; 20:00

- **E X P O S I C I Ó N**
Del 12 de marzo al 22 de abril de 2012

Esta exposición puede verse, acogiendo cada espacio diferentes materiales, en los siguientes lugares:

- Estación de metro de Casco Viejo (en el pasillo al ascensor de Begoña).
- Estación de metro de Santutxu (salidas Zabalbide y Karmelo).
- Estación de metro de Basarrate.
- Centro Municipal de Begoña (hasta el 13 de abril) (junto al Polideportivo de Txurdinaga).

- **P A S E D E I M Á G E N E S**
Del 12 de marzo al 22 de abril de 2012

Secuencia de fotografías + trailer del video "Begoña, un pueblo de altura" en TV de plasma.

- Centros Municipales de Castaños, Begoña, Otxarkoaga y Txurdinaga.

- **B E R T S O S A I O A**
15 de marzo • 19:30 h.

"Begoñako argazki zaharrei begira bertsotan", ARKAITZ ESTIBALLES y ETXAHUN LEKUE.

- Metro Casco Viejo, pasillo al ascensor de Begoña.

- **P R O Y E C C I O N E S**

Vídeo "Begoña, un pueblo de altura".

- 23 abril, Centro Municipal de Castaños.
- 24 abril, Centro Municipal de Begoña.
- 25 abril, Centro Municipal de Otxarkoaga.
- Horario de pases: 18:30 h.; 19:15 h.; 20:00 h.

BEGOÑA, goitik beherako herria un pueblo de cuerpo entero



Antolatzailea / Organiza:



Laguntzaileak / Colaboran:




BEGOÑA...

Gaur egun, Begoña izena entzundakoan hamaika kontu etortzen zaizkigu burura: eliza, Ama Birjina, pertsona izena, auzoa, futbol taldea agian... baina nekez, herria. Eta ez dira urte asko Begoña herria izan zela, herri zabala gainera, bere udaletxe, alkate, txinel, txistulari, bandera, ikur, eskolak, auzoak eta, jakina, herritarrok zeuzkala. Erakusketa honen helburua Begoña herria izan zena gure begien aurrean ipintzea da, Salbetik Otxarkoagaraino eta Egirletatik Boluetaraíno.

Egia da, bai, Bilbok Begoña bereganatu zuenetik (1925eko urtarrilaren 1a) herri kontzentzia galdu dela. Auzoek beren bidea egin dute, nork bere aldetik: Begoñaibarra, Matiko eta Uribarri, Zurbaran, Zurbaranbarri eta Arabella, Santutxu eta Bolueta, Txurdinaga eta Otxarkoaga... Horren ondorioz, elizaren eta Mallonaren inguruko etxe-multzoak besterik ez da Begoña.

Lerro hauen azpiko argazkia 1874 urtekoa baino lehenagokoa da. San Anton erreferentziatzat hartuta, erraza da ikusten duguna identifikatzea: behean, Atxuriko etxeak, Gizakunde komentuaren inguruan. Bertan, komentuan hain zuzen, hasten zen Begoña. Aldatsean gora dena da Begoña: San Antonen atzetik abiatzen den Zabalbideko aldatsa, bere ondoan zeuden frontoia eta Larrinagako kartzela, Santutxu aldeko baserriak, Santa Klara eta Santa Monika komentuak, Begoñako eliza, Begoñako kanposantua... Eta atzerago, Artxanda. Bertakoei mahatsorri esaten zieten (matzorri ahoskatuta), mahastien nagusitasuna gogoan. Bilbotarrekin -txinboekin, alegia-, batzuetan ondo, beste batzuetan borrokan.

Argazkiko eremu hori, eta bertatik Salberainoko alde osoa, Begoña zen. Artxandatik Ibaizabaleraino, goitik beherako herria.



Cuando escuchamos la palabra Begoña, nos vienen a la cabeza miles de recuerdos: una iglesia, una Virgen, el nombre de una persona, un barrio, quizás un equipo de fútbol..., pero difícilmente un pueblo. Y no ha pasado tanto tiempo desde que Begoña fuera un municipio, extenso además, con su ayuntamiento, alcalde, alguacil, txistulari, bandera, escudo, escuelas, barrios y, por supuesto, vecinos y vecinas. El objetivo de esta exposición es poner ante nuestros ojos todo lo que fue el municipio de Begoña, desde la Salve a Otxarkoaga y desde Egirleta (Santo Domingo) hasta Bolueta.

Es verdad que, desde que Bilbao se anexionó Begoña el 1 de enero de 1925, se ha perdido la conciencia de pueblo y que cada barrio ha seguido su camino: Castaños, Matiko y Uribarri, Zurbaran, Zurbaranbarri y Arabella, Santutxu y Bolueta, Txurdinaga y Otxarkoaga... Como resultado de tanta dispersión, Begoña ha quedado reducido a los grupos de viviendas cercanos a la iglesia y Mallona.

La foto que figura debajo de estas líneas es anterior a 1874. Es fácil identificar lo que vemos si tomamos como referencia San Antón: en la parte inferior, las casas de Atxuri, cercanas al convento de la Encarnación, donde comenzaba ya Begoña. Pendiente arriba todo es Begoña: la cuesta de Zabalbide, que parte de detrás de San Antón, el frontón y la cárcel de Larrinaga que se encontraban al lado, los caseríos de la zona de

Santutxu, los conventos de Santa Clara y Santa Mónica, el santuario de Begoña, el cementerio de Begoña... Y más atrás, Artxanda. Sus habitantes, que recibían el apelativo de 'mahatsorri' (pronunciado 'matzorri') recordando la abundancia de viñedos, mantenían relaciones de signo cambiante con los txinbos, es decir, los bilbaínos y las bilbaínas.

Desde el área que recoge la imagen hasta la Salve, todo era Begoña. Desde Artxanda hasta el Ibaizabal, un pueblo de cuerpo entero.

Begoña 1925 urterako arte izan zen udalerria. Elizatea, zehatzago esanda. Bere alkate, zinegotzi eta gainerako kargudun nahiz funtzionarioekin. Eta udaletxea, jakina. Lehenengo eraikina 1764an altzatu zuten, ordura arte herri batzarrak eliza ondoko arteen gerizpetan egiten baizituzten edo, euria bazen, elizako ateetan, Bizkaiko herriean ohi zen bezala. Lehenengo udaletxea mendea bete aurretik galdu zen eta 1856an berria eraiki eta zabaldu zuten. 1957an bota zuten, Begoñako tunela egiteko lanen ondorioz.



1



2



3



4

Hasta el año 1925, Begoña fue municipio. Bajo la tradicional denominación de anteiglesia, contaba con alcalde, concejales y demás cargos y funcionarios, así como con una Casa Consistorial. Hasta 1764, cuando se erigió el primer edificio, las sesiones municipales tenían lugar a la sombra de las encinas cercanas a la iglesia o, si llovía, ante sus puertas, como en casi todas las poblaciones vizcaínas. Aquel primer ayuntamiento se echó a perder antes de que cumpliera un siglo y en 1856 se construyó e inauguró otro nuevo. La excavación del túnel en 1957 supuso el derribo del inmueble.

Begoña haginkada bitan jan zuen Bilbok, hamaika ahalegin egin eta gero. 1870ean San Agustín, Campo Volantin, Kristo aldea, Askaoiturri, Zabalbideko behealdea, Atxuri eta Pontoia bereganatu zituen. 1925eko urtarrilaren 1ean, gainerako guztia. Baino hori gertatu arte, Begoña herri osoa izan zen, bere erakunde, ikur eta herri-sentimenduarekin.




1



2

- 1.- Fielak soka-dantzen buru. 1903.
Autoridades presidiendo
la soka-dantza. 1903.
- 2.- Elizateko plaza. 1937.
Plaza de la Anteiglesia. 1937.
- 3.- Begoñako planoa. 1923.
Plano de Begoña. 1923.

Después de muchos intentos, Bilbao se anexionó Begoña en dos fases. En 1870 se adueñó de San Agustín, Campo Volantín, la zona del Cristo, Askaoiturri, el sector inferior de Zabalbide, Atxuri y Pontón. El 1 de enero de 1925, el resto. Pero, hasta entonces, Begoña era todo un pueblo con sus instituciones, escudo y sentimientos populares.



3

BEGOÑA, baserritarra



1



2

1.- Garaizar txakolindegia. 1897.

Txakoli Garaizar. 1897.

2.- Begoñako txakolindegia.

Txakoli de Begoña.

3.- Esne-saltzaileak eta bendejerak.

Lecheras y vendejeras.

4.- Baserritarren sindikatukoak Begoñako elizan, 1945 urte inguruuan.

Miembros del Sindicato de Labradores en la iglesia de Begoña. Hacia 1945.

Begoña herri zabala izan zen eta gehiena, baseria. Salbetik Arbolantxaganera eta Larreagaburutik Artxandaz bestaldera, Egirleta aldera. Belaunez belaun, gizon eta emakume beharginek lurra goldatu, erein eta jorratu zuten, uzta jasotzeko. Baserri horietako fruiturik estimatuena mahatsa eta txakolina ziren. Baserri batzueta saldu egiten zuten, jatetxe edo taberna gisara. Haiek ziren Begoñako txakolindegia ospetsuak.

Begoña fue un extenso pueblo formado principalmente por caseríos que abarcaba desde la Salve a la cima de Arbolantxa y de Larreagaburu hasta el otro lado de Artxanda, hacia Egirleta. De generación en generación, los trabajadores y trabajadoras labraron, sembraron y cuidaron la tierra para recoger la cosecha. Uno de los frutos más apreciados de aquel trabajo agrícola eran la uva y el txakolí. En algunos caseríos lo vendían, a modo de restaurante o taberna. Eran los famosos txakolís de Begoña.



3



4

BEHARGINAK

Trabajadores y trabajadoras



Lantegiak goiz ailega ziren Begoñara. Olak, burdinolak, errotak, Pontoiko urun-fabrika... lege zaharrean bazeen gurean lantegirik. Baino industria iraultzaren orduak jo zuenean ere Begoña aurre-aurretik ibili zen: Boluetako Santa Ana fabrikan Bizkaiko lehenengo labe garaia paratu zuten (1848). Geroago Larreagaburuko meatzeak etorri ziren, Etxebarria anaien altzairu lantegia, Santutxuko Tabako fabrika...

Las fábricas llegaron pronto a Begoña. Ferrerías, fundiciones, molinos, la harinera de Pontón...; ya en el Antiguo Régimen disponía de factorías. Y cuando estalló la revolución industrial, Begoña también estuvo en primera línea: en la fábrica Santa Ana de Bolueta se colocó el primer alto horno de Bizkaia (1848). Más tarde llegaron las minas de Larreagaburu, la fábrica de acero de los hermanos Etxebarria, la fábrica de tabaco de Santutxu...

Echevarría, SA-ko beharginak. 1896.
Trabajadores de Echevarría, S.A.. 1896.

Begoñako Ama Birjinari debozio itzela gorde izan diote bizkaitarrek eta, oro har, euskaldunek. Itzal handiko santutegia izanik, erromeria jendetsuak egin izan dira eta egiten dira Begoñan. Hala ere, elizak berak aldaketa handiak sufritu ditu, gerren eraginez.



1

La población vizcaína, y gran parte de la vasca, han manifestado siempre una gran devoción hacia la Virgen de Begoña. Su santuario es un centro de culto prestigioso al que se han hecho y se hacen peregrinaciones muy numerosas, y que ha experimentado grandes transformaciones a consecuencia de las guerras.

1.- Begoñako erromeria. 1845

Romería de Begoña. 1845.

2.- Eliza bigarren gerra carlista baino lehen. 1874.

La iglesia antes de la segunda guerra carlista. 1874.

3.- Eliza bigarren karlistada pasa ondoren. 1880 urte inguruau.

La iglesia después de la segunda guerra carlista. Hacia 1880.



2



3

Begoñara abuztuaren 15ean, irailean eta urriaren 11n joan izan da erromes, besteak beste. Jendetza ikaragarriak batu izan dira bertan, hamaika lekutatik etorritako erromesekin. Baino XIX. mendearren amaieran, erromesaldiak kutsu politikoaz jantzi ziren, indar kontserbadoreek sustatu zituztelako, liberalismoaren eta, oro har, zabaltzen hasia zen laizismoaren aurka borrokatzeko. Horrela heldu ziren 1880ko erromesaldi jendetxua, Ama Birjinaren koronazioa (1900) eta Bizkaiko Zaindaria izendapena (1903).

Las peregrinaciones a Begoña se suelen realizar, entre otras fechas, el 15 de agosto, en septiembre y el 11 de octubre, propiciando concentraciones de devotos provenientes de diferentes lugares. Pero, a finales del siglo XIX, estas manifestaciones tomaron un cariz político, porque eran promovidas por las fuerzas conservadoras para luchar contra el liberalismo y, en general, contra el laicismo que se estaba expandiendo. Importantes muestras de esta corriente son la multitudinaria peregrinación de 1880, la coronación de la Virgen (1900) o su nombramiento como Patrona de Bizkaia (1903).

1.- Aberri Eguna. 1932.

2.- Prozesioa. 1908.
Procesión. 1908.

3.- Agur faxistak Begoñan. 1950 urte inguru.


Saludos fascistas en Begoña. Hacia 1950.

4.- Athleticens bandera. 1930.

Bandera del Athletic. 1930.



1



2



3



4

BEGOÑAIBARRA/CASTAÑOS - TIBOLI

Urte askotan alderdi hori Begoñako Ibarra auzoa izan zen. 1870ko hamarkadan Bilbok Begoñaibarra osoa bereganatu zuen, Salbetik Zingira kaleraíno. Berehala zabaldu zen alderdi honetatik: Tiboliko eskola (1880), udal hiltegia (1882) eta esklaben eliza (1886)... Eremu geografikoak ondo bereizi ziren: ibai ondoko esparru lau eta atsegina, burgesiaren jauregietarako; atzealdeko alderdi malkartsua, langileen etxebizitzetarako.



1



2

1.- **Salbe aldea. 1904.**
Zona de la Salve. 1904.


2.- **Tiboliko hiltegia.**
Matadero de Tívoli.

3.- **Salbeko garagardo fabrika. 1920 hamarkada.**
Fábrica de cerveza de la Salve. Década de 1920.

4.- **Jesusen Bihotzeko Esklaben eliza**
Iglesia de las Esclavas del Sagrado Corazón,



3



4

Durante muchos años, esta zona fue el barrio Ibarra de Begoña. En la década de 1870 Bilbao se anexionó todo Begoñaibarra, desde la Salve hasta la calle Sendeja. Enseguida se fue extendiendo por esta zona: escuela Tívoli (1880), matadero municipal (1882) y la iglesia de las esclavas (1886)... La orografía de la zona determinó el uso social del suelo: el área cercana a la ría, llana y apacible, para los palacetes de la burguesía; la accidentada de la parte posterior, para las casas de los obreros.



1



2



3

Uribarri auzoa egoera bitxian gelditu zen 1870ko anexioaren ostean: zati bat Bilboren baitan eta bestea Begoñan. Inguru horretan ermita egon zen, Kristo, baina hiriburuaren garapenak ezabatu zuen. Gaur kale baten izena besterik ez da. Hazkunde berak, osteria, eliza berriak ekarri zituen. Lehenengo, La Aneja, Bilboko San Nikolasekoari lotuta. Haren inguruan harilkatu zen, urte askotan, Uribarriko bizitza soziala, euskal kultura, euskara -Artxandape ikastola elizako lokaletan jaio zendo langile mugimendua kasu.

El barrio de Uribarri quedó en una situación curiosa después de la anexión de 1870: una parte incluida en Bilbao y la otra en Begoña. El desarrollo urbanístico de la capital destruyó la ermita del Cristo, cuyo recuerdo perdura en el nombre de una calle. Pero el propio crecimiento aportó nuevas iglesias. La primera, La Aneja, asociada a la de San Nicolás de Bilbao, en torno a la que se desarrolló la vida social de Uribarri, la cultura vasca, el euskera -la ikastola Artxandape surgió en los locales de esta iglesia- y el movimiento obrero, por ejemplo.

1.- Uribarriko eskolak. 1947-48 ikasturtea.
Escuelas de Uribarri. Curso 1947-48.

2.- Uribarriko elizaren zabalpen eguna. 1920.
Inauguración de la iglesia de Uribarri. 1920.

3.- Euskal dantzak. 1950.
Danzas vascas. 1950.

4.- Uribarriko eliza. La Aneja.
Iglesia de Uribarri. La Aneja.



4

ZURBARAN

Leinu zaharra da Zurbaran, bandokideen garaiko borroken oihartzunak aldean dakartzana, Erdi Aroan eta Aro Modernoaren hasieran Bilbo aldean itzal handia eskuratu zuen eta. Bada, dorretxea eta jauregia, Begoñako elizate zaharrean eduki zuten. Desagertu aurretik, lekukoa eman zion euskal estiloko txaletez egindako auzo berriari, izenak gutxienez iraun zean.



- 1.- Larrazabal txakolindegia. 1950.
Txakolí Larrazabal. 1950.
- 2.- Zurbarango auzoa. 1930.
Barrio de Zurbaran. 1930.
- 3.- Kristoko aldatseko lasterketa. 1931.
Carrera en la cuesta del Cristo. 1931.
- 4.- Zurbarango etxeak Arabellatik. 1930.
Las casas de Zurbaran desde Arabella. 1930.

Zurbaran, un antiguo linaje que nos trae ecos de la época de luchas entre bandos, consiguió gran notoriedad en la Edad Media y comienzos de la Edad Moderna. La familia fue propietaria de una casa-torre y de un palacio en la antigua anteiglesia de Begoña. Antes de su desaparición, cedió el testigo a un nuevo barrio de chalés de estilo vasco, para que, por lo menos, perdurara su nombre.



2



3



4

TXURDINAGA



1.- Garaizar txakolindegia. 1899.
Txakolí Garaizar. 1899.

2.- Artetxe baserria.
Caserío Artetxe.

3.- Ikuspegi orokorra. 1961 ingurukoa.
Vista general. Hacia 1961.



Begoñako baserri alde zabala eta emankorra izan zen Txurdinaga. Hiri hazkundea 1960. hamarkadaren amaieran heldu zen alderdi honetara eta urte gutxiren buruan guztiz aldatu zuen. Txurdinagan izen handiko baserriak, txakolindegia eta tabernak izan ziren.



Txurdinaga era una amplia y fértil zona de caseríos de Begoña. A finales de la década de 1960 llegó hasta aquí la expansión de la ciudad y en pocos años la cambió totalmente. En Txurdinaga hubo caseríos, txakolís y tabernas famosas.

OTXARKOAGA - ARBOLANTXA



1

1959-61 urteetan, Francoren diktadurapean, Begoñako lurretan egindako 3.672 etxebizitzek osatzen dute Otxarkoaga auzoa. Bizkaiko industrializazioak emigrazio handia ekarri zuen Bizkaira eta Bilbo ingurua etxez eta txabolaz bete zen. 1961ean Otxarkoagara ekarri zituzten etxe horietako biztanleak, batzuetan indarrez izan bazen ere.



2

El barrio Otxarkoaga lo componen las 3.672 viviendas edificadas en tierras de Begoña durante los años 1959-61, bajo la dictadura franquista. La industrialización de Bizkaia acarreó la llegada de numerosos inmigrantes y los alrededores de Bilbao se llenaron de casas y de chabolas. El acomodo de vecinos y vecinas en estas casas de Otxarkoaga se efectuó en 1961, recurriendo incluso a la fuerza para algunos realojos.



3

1.- **Ikuspegia orokorra. XIX. mende amaiera.**
Vista general. Finales del siglo XIX.

2.- **Justu baseliza.**
Ermita de San Justo.

3.- **Lozoño baserria.**
Caserío Lozoño.

4.- **Otxarkoaga poligonoa.**
Polígono Otxarkoaga.

5.- **Antzinako Ocharcoaga zinema, gaur egun, Udaltegia.**
Antiguo Cine Ocharcoaga, actualmente, Centro Municipal.



4



5

ZABALBIDE



1

Cueto Lizentziatuak 1500ean aipatzen zuen ordurako Begoñatarrek oso bizitza baketsua zeramatela, nekazaritzari eta txakolingtzari lotua. Eta halaxe segitu zuen mende batzuetan. Zabalbideko goialdean itzal handiko erakundeak zeuden: Santa Klara komentua, baserritarren sindikatua eta batzokia, Matiasen txakolindegia eta Gallaga taberna bildu zituen eraikina, besteak beste.

Ya en el año 1500 el Licenciado Cueto afirmaba que los y las begoñarras llevaban una vida muy pacífica, unida a la agricultura y a la elaboración de txakolí. Y así continuó durante varios siglos. En lo alto de Zabalbide se ubicaban organizaciones de gran prestigio como el convento de Santa Clara, el sindicato de labradores y el batzoki y el edificio que juntó el txakolí de Matías y la taberna Gallaga, entre otros.



3



2



4



5

- 1.- Zabalbide, XIX. mendearen amaieran. Zabalbide, finales del siglo XIX.
2.- Solokoetxeko ama-etxea. Casa de Maternidad de Solokoetxe.
3.- Sindikatua edo Lur Langileen Etxea. El Sindicato de Labradores.

- 4.- Prosesioa Santa Monika ondoan. 1906. Procesión junto a Santa Mónica. 1906.
5.- Juan Gisasola Bilbao, Begoñés, joan den mendeko palista ospetsua. Juan Gisasola Bilbao, Begoñés, famoso palista del pasado siglo.

Karmelo eliza eta komentua gazteontzat santutxuarra dela esaten badugu ere, gure zaharrek Begoñako Karmelo bezala ezagunagoa dute. Karmeldarrak 1880an etorri ziren Begoñara, Landaburu baseria konpondu eta atondu ondoren. Haren lurretan eraiki zuten gaurko eliza eta aspaldiko komentua.



1

Aunque para los y las jóvenes tanto la iglesia como el convento del Karmelo son de Santutxu, nuestros mayores lo conocen como el Karmelo de Begoña. Los carmelitas llegaron a Begoña en 1880 después de arreglar y acondicionar el caserío Landaburu. En esas tierras construirían la iglesia y el antiguo convento.



2

1.- Karmelo eliza.
Iglesia del Karmelo.

2.- 'Nuestra Señora de Begoña' organo fabrika.
Fábrica de órganos 'Nuestra Señora de Begoña'.

3.- Santuchu Foot Ball Club. 1924.



3

SAN FRANTZISKITO



1



2

Santutxu está muy estrechamente unido a San Francisquito. La creencia general es que Santutxu debe su nombre al pequeño tamaño de la imagen del santo, pero esto no es del todo cierto. La iglesia se fundó en 1735 y el nombre de Santutxu como topónimo aparece ya en 1595 en uno de los intentos de Bilbao de adueñarse de las tierras de Begoña.



5



3



4

Santutxu San Frantziskitorri estuki lotua dago. Uste orokorra da Santutxu izena San Frantziskitoko santuaren irudi txikiagatik eman zitzaiola auzoari. Hala ere, hori ez da guztiz zuzena. Eliza 1735ean fundatu zen baina Santutxu leku izena 1595ean agertzen zaigu, Bilbok Begoñako lurrik bereganatzeko egindako saiakeretan.

- 1.- San Franziskito.
- 2.- Santutxu Fulbol Taldekoak eliza aurrean. Entusiastas del Santutxu Fútbol Club ante la iglesia.
- 3.- Eliza zaharraren eraispena. 1975. Demolición de la antigua iglesia. 1975.
- 4.- Eliza berriaren lehen harria jartzen. 1966. Colocación de la primera piedra de la nueva iglesia. 1966.
- 5.- Bustintza baserria. Caserío Bustintza.